

# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 4416

*AGINDUA, 2022ko irailaren 27koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Errota Arratiako Garapen Sozioekonomikorako Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuetan egingdako aldaketa.*

2022ko maiatzaren 12an eskabide bat sartu zen, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailan, Errota Arratiako Garapen Sozioekonomikorako Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Fundazioaren patronatuak 2022ko martxoaren 15ean erabaki zuen aldaketa, eta publiko egin zen 2022ko maiatzaren 12an, Areatzan (Bizkaia), Pedro Álvarez Blanco notario jaunaren aurrean egiletsitako eskrituraren bidez (protokolo-zenbakia: 539). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Dokumentazio horren bidez, aldatu egiten da fundazioaren estatutuetako 13. artikulua bigarren atala, gobernu-organoaren osaera malgutzeko kide kopuru jakin batez osatuta egoteko betebeharra alde batera utziko da; eta horren ordez, gehienez ere 11 izango dira.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau Agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorriz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta,

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Errota Arratiako Garapen Sozioekonomikorako Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuen 13.2 artikulua aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, Agindu honen datarekin, 2022ko maiatzaren 12an, Areatzan, Pedro Álvarez Blanco notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan. (protokolo-zenbakia: 539).

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 27a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.